

ESPLORATZAILEAK

JUAN SEBASTIAN
ELKANO

Bidaia horretan lehenengo aldiz Lurrari bira osoa ematea lortu zen, bidean ezezagunak ziren lurralde eta itsasoak zeharkatuz. Lorpen hori garai hartarako aurrerapauso ikaragarria izan zen, Lurra biribila zela frogatu zuelako eta itsasbide berriak ezagutu zituztelako.

CHARLES
DARWIN

Hego Polara iritsita, Norvegiako bandera jarri zuen eta kanpin-denda batean bere lehiakide zen Robert Scott-entzat eskutitz bat utzi zuen. Scott eta bere taldekideak 35 egun geroago heldu ziren Hego Polara, baina bueltako bidean hil ziren.

ROALD
AMUNDSEN

Lehenengo emakumea izan zen espaziora joaten. Espazio-bidaia horretan, lur planetari 48 bira eman zizkion hiru egunetan.

ROBERT
FALCON
SCOTT

Bidaiaren lehenengo eskala Cabo Verden egin zuten; ondoren, Brasilerara abiatu ziren. Hango baso tropikala ikusita, liluraturik gelditu zen. Gero Argentinara nabigatu zuten eta ugaztun erraldioen fosilak aurkitu zituzten. Aurkikuntza horiek bere teoriaren oinarria ezarri zuten.

VALENTINA
TERESHKOVA

Tripulazio kideak hiru ziren: I esploratzailea, II esploratzailea eta III esploratzailea. II esploratzailea Ilargi moduluaren pilotua zen eta III esploratzailea Ilargiaren orbitan kontrol moduluaren pilotua. I esploratzailea, aldiz, bidaiaren komandantea zen.

AMSTRONG,
ALDRIN ETA
COLLINS

Erresuma Batuan jaio zen 1868. urtean. Britainiar armadako ofizial eta esploratzailea izan zen eta bere gidaritzapean Antartikara bi espedizio egin ziren: 1901-1904 urteetan Discovery izeneko espedizioa, eta 1910-1913 artean Terra Nova espedizioa.